

# HARRERA TELEFONOAN

## AZALPENA:

Harrera euskaraz egitea oso garrantzitsua da. Euskal Herrian badago populazioaren zati handi bat erdalduna dena, baina euskaldunak edo elebidunak ere ez dira gutxi. Gehienetan, agurrak euskaraz emateak ez du sortzen inolako nabarmenkeriarik, aski ondo ulertzen baitira eta euskal herritar guztiek ezagutzen dituztelako.

Hortaz, telefono dei bat jasotzen dugunean, harrera euskaraz eginez, bidea ematen diozu euskaldun bati euskaraz egiteko. Beste alde batetik, erdalduna bazara edo, oraindik ez bazara euskaraz ondo moldatzen, begirunea islatzen diozu euskalduna den bezeroari, eta ez duzu erdalduna baztertzen “egun on” esateagatik.

<b>11DOK, bai esan?</b>	¿11DOK, sí dígame?
<b>11DOK, egun on</b>	11DOK, buenos días
<b>11DOK, eguerdi on</b>	(No hay equivalente en castellano)
<b>11DOK, arratsalde/arrasti on</b>	11DOK, buenas tardes
<b>Bai, nor da?</b>	Sí, ¿quién es?
<b>Bai, oraintxe jarriko da</b>	Sí, ahora mismo se pone
<b>Galdetuko dut, itxaron pixka bat, mesedez</b>	Voy a preguntar, espere un poco, por favor
<b>Ez dakit, nire lankide batekin pasatuko dizut</b>	No sé, le paso con un/una compañero/a.
<b>Momentu honetan ez dago</b>	En estos momentos no está
<b>Orain ez dago bere lekuan</b>	Ahora no está en su sitio
<b>Barkatu baina orain telefonoz hitz egiten ari da</b>	Perdone pero ahora está hablando por teléfono
<b>Une honetan bilera batean dago</b>	En este momento está en una reunión
<b>Gaur ez da etorriko</b>	Hoy no va a venir
<b>Barkatu, bajan dago</b>	Perdone, está de baja
<b>Deitu apur bat beranduago, mesedez</b>	Llame un poco más tarde, por favor.
<b>Utzidazu zure telefonoa eta berak zuri deituko dizu</b>	Déjeme su teléfono y le llamará a usted
<b>Barkatu, ez dizut ulertu, errepikatu, mesedez.</b>	Perdone, no le he entendido, repita, por favor
<b>Bai, oraintxe bertan pasatuko zaitut</b>	Sí, ahora mismo le paso
<b>Bai, oraintxe jarriko da</b>	Sí, ahora mismo se pone
<b>Ez, sentitzen dut</b>	No, lo siento
<b>Ez, erratu egin zara</b>	No, se ha equivocado
<b>Deitu telefono honetara:</b>	Llame a este teléfono:
<b>Keparekin hitz egin nahi dut</b>	Quiero hablar con Kepa